



HD deskodetzaile grabagailua



3801A6

SEGURTASUNA

Euskaltelen **HD deskodetzailu grabagailua** nazioarteko segurtasun-estandarren arabera fabrikatu da. Hala ere, **segurtasunerako neurri batzuk bete behar dira** norberaren segurtasuna eta deskodetzailuaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko. Kontuan izan jarraibide hauek:



Karranpa-arriskurik ez izateko

- ⚡ Kable deskodetzailu honek 230 V eta 50 Hz-ko korrante alternoa (KA) behar du funtzionatzeko. Ezin da korrante zuzeneko elikadura-ituririk erabili. Gogoan izan horrelako elikadura-iturri bat ukitzeak heriotza eragin dezakeela.
- ⚡ Deskodetzailua sare elektrikora **konektatu baino lehen**, ziurtatu konexio elektriko guztiak ondo daudela. Kable bat konektatu edo deskonektatu aurretik, deskonektatu beti deskodetzailua.
- ⚡ Deskodetzailua sare elektrikora konektatzean, konektatu —beti— elikatze kablea deskodetzailuaren atzeko panelean dagoen elikatze konektorerara, beste mutura entxufera **konektatu baino lehen**. Halaber, deskonektatu kablea sare elektrikotik deskodetzailuaren elikadura-kablea entxufetik atera aurretik.
- ⚡ Ez ahalegindu sekula deskodetzailua konpontzen edo berregiten. Baimenik gabeko pertsona batek deskodetzailua konpondu, desmuntatu edo muntatzen bada, deskarga elektriko larria gerta daiteke.
- ⚡ Deskodetzailuaren estalkia kentzen baduzu, deskarga elektriko handia har dezakezu; hilgarria izan daiteke.
- ⚡ Kontuz ura edo beste likidoren bat unitatearen gainera erortzen bada. Deskonektatu berehala elikatze kablearen entxufea.



Zer egin behar den

- ✓ Kaxan zerbait erortzen bada, deskonektatu deskodetzailea eta eraman teknikari aditu bati, azter dezan.
- ✓ Ez utzi deskodetzailearen gainean aire-zirkulazioa eragozten duen objekturik. Ekipoa ondo kontserbatzeko, ezinbestekoa da hura behar bezala aireztatzea. Horregatik, ez jarri deskodetzailetik hurbil erradiadorerik edo bestelako bero-iturririk.
- ✓ Garbitzeko, deskonektatu deskodetzailearen elikadura eta erabili zapi lehor bat beti.

Zer egin behar ez den

- ✗ Ez ipini deskodetzailea muturreko tenperaturak, zuzeneko eguzki-argia edo hezetasun handia dagoen tokian.
- ✗ Ez jarri objektu pisutsurik deskodetzailearen gainean.
- ✗ Ez ipini deskodetzailea oihal, alfombra edo su har dezaketen materialen gainean.



zuntzOptikoa

Teknologiarik aurreratuenak, TBa ikusteko modu berri batez goza dezazun.

FULL HD +

HD deskodetzailerik grabagailuak irudi-kalitate handiena du Full HDrekin (1080p). HD Ready-rekin ere bateragarria da.

250o PVR

500 GB-ko disko gogorra, gogokoen dituzun programen 250 ordu grabatzeko.

TIMESHIFT

Gelditu, errepikatu, aurreratu eta atzeratu unerik onenak zuk nahi duzunean.

DOLBY DIGITAL PLUS

Goza ezazu soinu-kalitate onenaz Dolby Digital Plus emisioa duten kanaletan.

HDMI

Multimedia-konexioak (HDMI) bermatzen dizu audio eta bideo hobek izango dituzula Bereizmen Handian.



mirador

Estreinaldiko zinemarik eta helduentzako zinemarik onena eta futbol-partidarik zirraragarrienak.

GRABAKETA BIKOITZA

Deskodetzaileraren bi sintonizadoreei esker, aukera izango duzu kanal bat grabatzen ari zaren bitartean beste programa bat ikusteko, bai eta aldi berean bi grabazio egiteko ere.

Internet

Sartu Interneteko zerbitzurik onenetara zure telebistatik.



USB sarrera, zure TBko edukiez gozatzeko.

* Funtzio hori erabilgarri egongo da etorkizuneko bertsioetan.



AURKIBIDEA



Sarrera	10
Kaxa honek hauek ditu	12
Lehen urratsak	
Instalazioa	14
Urrutiko agintea	16
Maiz egiten diren galderak	20
Datu teknikoak	22
Birziklatzea	23





**Euskaltelen
izenean, ongi
etorri Bereizmen
Handira**



BEREIZMEN HANDIKO TB DIGITALA TELEBISTA BAINO ASKOZ GEHIAGO DA EUSKALTELEN ZUNTZ OPTIKOARI ESKER



Bereizmen Handia (HD) eskusiban eskaintzen dizu Euskaltelen Zuntz Optiko-ko sareak. Euskaltekin soilik izango duzu aukera Bereizmen Handiko kanalik onenetara sartzeko, kalitate izugarriarekin:

- ◆ Bereizmen Handiko gero eta kanal gehiago ikusiko dituzu.
- ◆ Bereizmen estandarreko 120 kanal.
- ◆ Futbol-partidarik zirrargarrienak, azkeneko zinema-estrenaldiak eta helduentzako zinemarik onena Miradorren daude, Euskaltelen PPVko zerbitzuan.

IKUSI TELEBISTA SEKULA IKUSI EZ DUZUN BEZALA

- ◆ 1080p-rainoko bereizmena, zure **Full HD edo HD Ready** telebistari ahalik eta abantaila handiena ateratzeko.

- ◆ Kalitate eta argitasun handiagoko irudiak, kolore biziagoak, irudi errealistagoak.
- ◆ Zinemako soinua, etxean, **Dolby Digital Plus** teknologiari esker.

IKUSI NAHI DUZUNEA, NAHI DUZUN BEZALA

- ◆ Ez utzi ikusi gabe gogokoen dituzun programak. Grabazio-funtzioari esker (PVR), **telebistako 250 ordu gorde ditzakezu**, nahi duzuna nahi duzunean ikusteko.
- ◆ **TimeShift** moduarekin, zuk duzu agintea. Gelditu telebista, errepikatu unerik onenak, joan aurrera eta atzera... Orain, zurea da agintea.



KAXA HONEK HAUEK DITU

- 1
- 2





3

4

5

6



Euskaltelen HD deskodetzaile grabagailuarekin batera, elementu hauek datoz:

- ① HD deskodetzaile grabagailua
- ② Urrutiko aginte unibertsal bat (deskodetzailea eta TBa)
- ③ RF kablea
- ④ HDMI kablea
- ⑤ Kable eurokonektorea
- ⑥ Kanpoko elikatze-iturri eramangarria (198-264V, 47-63 Hz)

LEHEN URRATSAK: INSTALAZIOA

HD deskodetzaile grabagailuaren instalazioa oso erraza da. Urrats hauei jarraitu, eta prest egongo zara Bereizmen Handiaz (HD) gozatzeko.



*HD deskodetzaile grabagailuaren atzeko aldearen argazkia

1. Konektatu hemen Euskaltelen kablea.
2. Bereizmen Handiaz (HD) gozatzeko, konektatu HDMI kablea zure telebistara.
3. Zure telebistak ez badu HDMI irteerarik, konektatu eurokonektorea TBa bereizmen estandarrean (SD) ikusteko.
4. Konektatu elikatze-unitatearen sarrera.
5. Azkenik, sakatu etengailua "zero kontsumo" modua desaktibatzeko.



*HD deskodetzaila grabagailuaren aurreko aldearen argazkia

6. Ireki tapa, eta sartu Euskaltelak eman dizun txartela, txipa behera begira duela. Hala, TB digitaleko kanalik onenak ikusten hasiko zara.

7. Piztu deskodetzaila





LEHEN URRATSAK: URRUNEKO AGINTEA

NABIGAZIOA



1. Orain aginte bakarrarekin kontrola dezakezu zure telebista. Argia laranja bada, Euskaltelen deskodetzailea kontrolatzen ari zara. Botoi hau sakatzen baduzu, telebista kontrolatuko duzu (argi berdea).*



2. Lagundu ingurumena zaintzen! Deskodetzailea erabiltzen ari ez zarenean, manten ezazu itzalita. Ez die zure grabaketei eragingo, eta guztiontzako etorkizuna eraikitzen lagunduko diguzu.



3. Aldatu zure pantailaren formatua eta kanalaren hizkuntza, edo aktibatu azpiituluak jatorrizko bertsioa ikusteko.



4. Informazio zabalduari esker, gehien interesatzen zaizkizun ekitaldiei buruzko xehetasun guztiak ezagutuko dituzu.



5. Begiratu zer ekitaldi ematen ari garen, eta ezagutu gustukoen dituzun generoetako programa berriak.



6. Sakatu SALIR berriz TBa ikusteko.



7. Sakatu ATRÁS aurreko pantailara itzultzeko.

* Agintea konfiguratu egin behar duzu telebistarekin funtziona dezan. Ikusi telebista bakoitzeko konfigurazio-kodeen zerrenda hemen: www.euskaltel.com/tbagintea.





PVR (bideo-grabagailu digitala)



8. Grabatu gogokoen dituzun ekitaldiak. 250 ordu pilatu ditzakezu deskodetzailan.



9. Sartu grabatutako emanaldien zerrendara, eta nahi duzunean berriro ikusi.



10. Sakatu REPLAY zuzeneko ekitaldi bat ikusten ari zarenean, eta azken 10 segundoak errepikatuko dira.



11. Kontrolatu grabaketan erreprodukzioa TimeShift moduarekin (gelditu, errepikatu, aurreratu eta atzeratu ikusten ari zaren irudia).



12. Sakatu LIVE! zuzeneko emanaldia berriro ikusteko.

MULTIMEDIA



13. Aldatu zure telebistaren bereizmena.



14. Sartu gure zerbitzu interaktiboetara (esaterako, Euskalmet, futboleko foroak, YQT, Gramola Digitala...).



15. Miradorri esker, aukera izango duzu PPVko ekitaldirik onenak kontrolatzeko: estreinaldiko zinema, helduentzako zinema eta zuzeneko futbola.



16. Sakatu MENÚ, eta personalizatu telebista. Edo sartu erraz HD deskodetzaille grabagailuaren funtzionalitate guztietara.



17. Pantailaren beheko aldean erabilgarri dauden ekintzak ikusiko dituzu, koloretako botoien bidez.



MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

Nola konfiguratu behar dut Bereizmen Handiko telebista?

Zure telebistak Bereizmen Handia badu, konektatu deskodetzailea HDMI kablearen bidez. Konektatu ondoren, erabili urrutiko aginteko  tekla pantailaren Bereizmen Handia hautatzeko.

Zure telebista HD Ready bada, erabili 720 edo 1080i. Full HD bada, berriz, eskuratu Bereizmen Handiena deskodetzailea 1080p-rekin konfiguraturuta.

Zergatik ez ditut kanal guztiak ikusten Bereizmen Handian?

Kanal askok oraindik ez dute ematen beren programazioa Bereizmen Handian. Euskaltelen, Bereizmen Handiko kanalik onenak ditugu, eta kanal berriak eransten jarraitzeko konpromisoa dugu, Bereizmen Handian goza dezazun programazio onenaz.

Programa bat baino gehiago graba ditzaket aldi berean?

Zure deskodetzaileak bi programa graba ditzake, gehienez, aldi berean. Kontuan izan grabaketa bikoitza aktibatua dagoenean, zure deskodetzaileak ezingo dituela beste kanalak sintonizatu. Hortaz, bi grabazio aldi berean egiten ari zarenean, grabatzen ari zaren kanalak soilik ikusi ahal izango dituzu.

Grabatzen ari ez zaren kanal batera aldatzeko, grabazioetako bat eten behar duzu. Grabazioak eteteko,  (stop) botoia sakatu behar duzu.

Telebistako zenbat ordu gorde ditzaket disko gogorrean?

Zure deskodetzailearen 500 GB-ko disko gogorri esker, gogokoen dituzun programen 150 ordu gorde ditzakezu HDn, eta 250 bat ordu bereizmen estandarrean.

Espazio erabilgarriaren segimendua errazteko eta grabazio bat bera ere ez galtzeko, deskodetzaileak abisatu egingo dizu disko gogorriaren espazio erabilgarria diskoaren gaitasunaren % 10 baino txikiagoa denean.

Zer da TimeShift?

TimeShift moduarekin telebista zuzenean kontrolatu ahal izango duzu, hau da, sintonizatutako kanala geratu edo atzera zein aurrera bota ahal izango duzu.

Gogoan izan TimeShift-en hiru programa-ordu gorde daitezkeela gehienez eta funtzio horiek sintonizatutako kanalen edukiekin bakarrik erabil ditzakezula. Ezin izango duzu oraindik eman ez diren edukietara aurreratu. TimeShift-ek jada eman diren edukien gainean jarduteko aukera bakarrik ematen du, eta soilik eduki horiek ematean kanala sintonizatuta zegoen kasuetan.

Grabazioak egiteko, ezinbestekoa da HD deskodetzaile grabagailua piztua izatea?

Grabazioak egiteko, deskodetzailea aktibatuta edo egonean (*stand by*) egon daiteke. Deskodetzailearen entxufea ateratzen baduzu edo deskodetzailea atzeko botoiaren bidez itzaltzen baduzu, ezin izango duzu ezer grabatu.

Grabazio batzuk ez daude osorik; zergatik?

Grabazioak edozein unetan eten daitezke, urrutiko agintea erabilita. Gainera, egoera batzuetan deskodetzaileak ezin du grabaziorik egin; adibidez, argia joaten denean edo telebistaren seinalea galtzen denean.

Mirador zerbitzuaren bidez kontrataturiko pelikulak graba ditzaket?

Mirador zerbitzuaren bidez kontrataturiko pelikula guztiak automatikoki grabatzen dira, eta disko gogorrean izango dituzu eman eta hurrengo 24 orduetan. Hala, eguneko nahi duzun unean ikusi ahal izango duzu. Denbora hori igaro ondoren, automatikoki ezabatuko dira.

Miradorren egindako erosketak ezeztatu daitezke?

Ez, ezin dira erositako ikuskizunak ezeztatu, nahiz eta hasi gabe egon. Aplikazioaren etorkizuneko bertsioetan gehituko dugu aukera hori. Ikustaldiko ordaintzen diren ikuskizunak erostean arazorik baduzu, jarri harremanetan gurekin doako 1717 zenbakian.

Nola aktibatzen dira irrati- eta telebista-kanalak?

Deskodetzaile honetan, telebista- eta irrati-kanalak bi zerrendatan banatuta daude; horrela, erosoagoa da gogokoen dituzun kanaletara joatea. Gogokoen zerrenda aldatzeko, OK tekla sakatu eta alboetako kurtsoreak erabili behar dituzu telebista ikusten ari zaren bitartean, interesatzen zaizun zerrenda hautatzeko.

HD grabagailu-deskodetzailea erabil dezaket eurokonektorearen bidez telebista definizio estandarrean ikusteko?

Bai; horretarako, pantailaren bereizmena konfiguratu behar duzu, 576i hautatuta (📏); konfigurazio horrekin, definizio estandarren zerbitzua erabili ahal izango duzu eurokonektorearen bidez.

Zergatik agertzen da “HDCP” mezua telebistan deskodetzailea hautatzen dudanean?

HDCP edukiak babesteko sistema bat da, HDMI konexioentzat. Zure telebista HDMI bidez konektatuta badago deskodetzailerara eta telebistara hainbat gailu konektatzen badituzu (kontsola, Blu-ray, etab.), baliteke telebista deskodetzaileraren seinalera aldatzean babes horri buruzko ohar bat agertzea. Mezu hori desagertu egingo da segundo batzuk igaro ondoren; desagertzen ez bada, mesedez jarri gurekin harremanetan laguntza teknikoko doako 1718 telefonoan.



DATU TEKNIKOAK

OROKORRA

Deskribapena:

HD deskodetzailer grabagailua, DVB-C sintonizadore bikoitza eta Interneterako sarbidea dituena. Disko gogorrean 500 GB gordetzeko gaitasuna.

Bereizmenak:

576i, 576p, 720p, 1080i, 1080p (HDMI), 1080p (YPbPr).

BESTE ZENBAIT

Kontserbazioa:

5-40 gradu bitarteko tenperatura. Babestu hezetasunetik (<% 75).

KONEXIOAK

HDMI v1.3a
SPDIF audio digital optikoa
YPbPr bideo-irteera
RCA audio analogikoa (L R)
TBko eurokonektorea
VCRko eurokonektorea
USB 2.0 (x2)

Dolby Laboratories-en baimenarekin fabrikatua. Dolby eta D bikoitzaren sinboloa Dolby Laboratories-en marka komertzialak dira..

HDMI Licensing LLCren marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira HDMI, HDMIren logotipoa eta High-Definition Multimedia Interface.



Ikur honek bermatzen du produktuak Europako 2006/95/EE, 2004/108/EE eta 2009/125/EE direktibak betetzen dituela (segurtasunari, bateragarritasun elektromagnetikoari eta energiarekin loturiko produktuei buruzkoak).

BIRZIKLAPENA



Ekipo elektrikoak eta elektronikoak eta haien pilak/bateriak behar bezala botatzea bizitza baliagarria amaitzean.

(Europako Batasunean eta pilak eta bateriak gaika biltzeko sistemak dituzten Europako herrialdeetan aplikatzekoa)

Esku artean duzun ekipo elektriko eta elektronikoak pilak/bateriak ditu, eta horiek 208/2005 Errege Dekretuan —gailu elektriko eta elektronikoei eta haien hondakinei buruzkoa— eta 106/2008 Errege Dekretuan —pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa— ezartzen diren baldintzak betetzen dituzte; horregatik, arretaz irakurri, mesedez, jarraibide hauek.



Ikur hori ikusiko duzu zure ekipoan eta/edo harekin batera doan informazio-materialean eta pilan/baterian. Ikur horrek esan nahi du ekipoaren edo haren pilen edo baterien bizitza erabilgarria amaitzean, ez direla bota behar etxeko beste zaborrarekin batera; **EZ DIRA BOTA BEHAR HIRI-HONDAKINEN EDUKIONTZI BATERA**, hondakinen gaikako bilketako puntu batean tratatzera eta kudeatzera eraman behar dira.

Horrez gain, piletan/baterietan ikur kimiko bat baldin badago (Hg, Cd edo Pb) aurreko ikurraren alboan, horrek esan nahi du pilak/bateriak metal astuna duena, merkurioa, kadmioa edo beruna, hurrenez hurren, eta, beraz, hondakin arriskutsua dela.

Jarraibide horiek errespetatuz gero, ekipo hau eta pila/bateria gaizki erabiltzeak ingurumenean eta giza osasunean eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzen lagunduko duzu, eta, gainera, hondakinak ingurumenaren aldetik behar bezala kudeatzen eta zure inguruko ingurumena zaintzen lagunduko duzu.

Ekipo hau eta pilak/bateriak birziklatzeari buruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, tokiko agintari eskumendunengana edo hurbilen duzun gaikako biltzegira jo dezakezu.





WWW.EUSKATEL.COM